

EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2024

PLAN ESTRATÉGICO DE LA GASTRONOMÍA Y ALIMENTACIÓN DE EUSKADI 2024



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA
2. GEPE BERRIAREN IKUSPUNTUA ETA MISIOA
3. PLANAREN OINARRIAK
4. HELBURU ESTRATEGIKOAK
5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LEHENTASUNEZKO EKINTZA-ILDOAK
6. JARDUKETEN LABURPENA
7. GEPE BERRIAREN EKARPENA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI (GJH)
8. GOBERNANTZA-EREDUA
9. AURREKONTU-ESPARRUA

1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

AURREKARIAK

2017an, **Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoa (GEPE)** amaitu zen, zeina aurreko legegintzaldiko Gobernu Programaren Plan Estrategiko gisa artikulatuta zegoen.

Plan hori **integrala eta berritzailea** zen orientazioari zegokienez; izan ere, balio-katearen kate-maila guztiak biltzen zituen, lehen sektoreko ekoizpenetik elikagaien kontsumora arte. Horrez gain, pertsonak (elikagaien kontsumitzaileak) balio-katearen erdigunean ipini zituen, eta beste ekonomia-, kultura- eta gizarte-sektore batzuekiko harremanak aintzat hartzen zituen.



Plan horren helburua zen **euskal elikaduraren eta gastronomiaren 4 S-etan lan egiten jarraitzea: segurua (segura), osasuntsua (saludable), singularra (singular) eta jasangarria (sostenible) (gizarteari, kulturari, ekonomiari eta ingurumenari dagokienez).**




Planaren emaitzen artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Planaren amaieran, Euskadiko ekonomian elikadura eta gastronomiaren balio-kateak zuen pisua **BPGd-ren % 9,37koa** izango zela kalkulatu zen; hala ere, aurreikusitako helburua % 12koa zen. Desfase hori, neurri handi batean, **COVID-19ak** baldintzatu du; izan ere, ondorio nabarmenak izan ditu edarien, turismoaren eta gastronomiaren sektorean.


Balio-katearen ehunekoa euskal ekonomiaren BPGren guztizkoaren gainean



- Planean aurreikusitako ardatz estrategiko eta lehenetsueneko ildo guztietan jardura garrantzitsuak garatu dira. Gainera, COVID-19aren aurkako neurri-sorta bat artikulatu da.



Euskadiko elikaduraren balio-kateak BPGd-ri egindako ekarpena




Euskadiko elikaduraren balio-katea erabiltzen laguntzea

BPGd-ren
% 9,37

ENPLEGU ZUZENAK
137.480 (% 13,58)


- 2017 eta 2020 urteen arteko Gastu Publiko Osoa **239,4 milioi eurokoa izan da, eta inbertsio osoa 637 milioi eurotik gorakoa da.**

Mobilizatutako funts publikoen banaketa (%) (2017-2020)



PROGRAMA	GASTU PUBLIKO OSOA 2017-2020	INBERTSIO PRIBATUA 2017-2020	GUZTIRA 2017-2020
Lehiatu Berria Programa. Eraldaketarako eta merkaturatzeko laguntzak.	43.238.428,00	129.715.284,00	172.953.712,00
G4, G5 eta G7 landa-inguruak sustatu eta garatzeko laguntzak.	19.436.640,00	45.352.160,00	64.788.800,00
Leader programa. Sustapenerako, garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak.	23.803.345,00	35.705.017,50	59.508.362,50
Mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorea sustatzeko programa: Sustapena.	24.251.996,59	24.251.996,59	48.503.993,17
Mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorea sustatzeko programa: Inbertsioak.	10.014.749,64	30.044.248,92	40.058.998,56
G4, G5 eta G6 landa-inguruak garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak.	9.435.000,00	22.015.000,00	31.450.000,00
FEMP laguntzak: eraldaketa eta merkaturatzea.	15.064.586,67	10.403.514,06	25.468.100,73
FEMP laguntzak: itsasbazerreko sustapena eta garapena.	7.346.250,00	11.019.375,00	18.365.625,00
Nekazaritza, baso eta arrantzako produktuen sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzak.	7.350.000,00	7.350.000,00	14.700.000,00
FEMP laguntzak: Ikerketa, garapena, teknologia transferentzia, etab.	13.558.128,00	260.733,23	13.818.861,23
Mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko inbertsio-proiektuetarako laguntzak, ARDOAINB gutxieneko laguntzen araubidepean.	3.435.000,00	10.305.000,00	13.740.000,00
Ikertzaileen eta teknologoien prestakuntzarako laguntzak.	6.769.413,20	6.769.413,20	13.538.826,40
NEKAFIN 2020	600.000,00	10.500.000,00	11.100.000,00
Mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorea laguntzeko programa: Berregituratzea eta birmoldaketa.	2.594.765,47	7.784.296,40	10.379.061,87
Nekazaritza eta baso ekoizleentzako LGPn aurreikusitako laguntzak.	2.000.000,00	6.000.000,00	8.000.000,00
Nekazaritza eta elikadura produktuen kalitate-araubideak.	3.148.880,48	4.723.320,72	7.872.201,20
Landa Garapenerako Planaren (LGP) esparruan lankidetzan aritzeko laguntzak.	5.269.000,00	2.258.142,86	7.527.142,86

TESTUINGURUA



2. MISIOA ETA IKUSPUNTUA

Gastronomia eta elikadura bultzatzea, sustatzea eta garatzea **Euskadiko ekonomiarako sektore estrategiko gisa**, izan ere, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko eta kultura-ondare gastronomikoa eta natura- eta paisaia-baliabideak kontserbatzeko gaitasuna dauka.

Gastronomia eta elikagaien industria bultzatzeko politikak eta tresnak sustatzea, bereziki, **kalitatezko produktu osasuntsua bultzatzen duena, jasangarritasuna bultzatzen duena, kalitatezko balio turistikoko proposamen bat sortzen duena eta Basque Country marka nazioartean zabaltzen duena.**

Gastronomiaren eta elikaduraren balio-kate bat: osasuntsua, segurua, singularra eta jasangarria (gizarteari, kulturari, ekonomiari eta ingurumenari dagokienez).

Euskadi munduko erreferente bihurtzea gastronomiaren eta elikaduraren arloan, balio-kate osoan kalitateari eta jasangarritasun ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoari dagokienez dauzkan ezaugarriengatik.

3. PLANAREN OINARRIAK

2024rako Gastronomia eta Elikadura Planak (GEPE Berria) **2020-2024 Gobernu Programaren printzipioetan parte hartzen du:**

1. Osasuna bermatzea.
2. Ekonomia eta enplegua suspertzea.
3. Inor atzean ez uztea.

Gainera, honako printzipio hauek ditu:

- Arreta jartzea pertsonengan eta enpresetan.
- Elikadura-ekosistema integratua, dinamikoa, lehiakorra eta nazioarteko bokaziokoa bultzatzea.
- Elikadura-sistema seguru, jasangarri eta osasuntsu baterantz aurrera egitea.
- Lurraldearen garapen jasangarriaren aldeko apustua egitea, landa-- eta itsasertz-eremua zaintzea eta haren jarduera ekonomikoa sustatzea.
- Eragile anitzeko lankidetzak.
- Euskadin bioekonomia zirkularra sustatzea.

4. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

GEPE Berriak bere egiten ditu 2020-2024 Gobernu Programan ezarritako herri-helburuak. Xede horrekin, honako honetan laguntzen du:

- Langabezia % 10etik behera jaistera.
- Industrian eta zerbitzu aurreratuetan BPGd-ren % 40 gaitzea.
- Europako batezbestekoarekin I+G-ko konbergentzia lortzea.
- Euskadi genero-berdintasunaren indize handiena duten 6 herrialdeen artean kokatzea.
- Berotegi-efektuko gasen isurketa % 30 murriztea.
- Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea lortzea.

Horiekin batera, 2024rako Gastronomia eta Elikaduraren Planari zuzenean dagozkion honako helburu kuantitatibo hauek ezartzen dira:

- Elikaduraren eta gastronomiaren balio-katearen BEG % 25 handitzea 2020-2024 aldian.
- Lehen mailako sektorearen eta elikagaien eta edarien industriaren BEG % 15 handitzea 2020-2024 aldian.

Halaber, honako helburu hauek ezarri dira:

- Gastronomia eta elikadurako ekosistema ireki eta elkarlanekoa sortzea, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakoa, elikaduraren balio-katea digitala, lurraldekoa eta ingurumenekoa eraldatzeko.
- Enplegu jasagarri sortzea elikaduraren balio-katean, arreta berezia jarriz lehen mailako sektorean, eta, bereziki, gazteen eta emakumeen kolektiboetan.
- Balio-kateko eragile guztien lehiakortasuna hobetzea eta lehen mailako sektoreak balio-katean duen eginkizuna indartzea.
- Euskal elikaduraren balio-katea bultzatzea, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzako elkarlanaren bidez.
- Euskal gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea handitzea, elikadura osasuntsu, berezi eta seguruaren bidez.
- Euskadik nazioartean duen kokapena eta ospea sendotzea, kalitatezko turismorako elikaduraren eta gastronomiaren arloko erreferentziazko lurralde eta lurralde erakargarri bihurtzeko.
- Euskal gastronomiaren sektorerako jauzi kualitatiboa erraztea, berrikuntzaren eta kalitatearen ezaugarriengatik, eta nazioartean Basque Country markarekin proiektatzea.
- Euskadi Bioekonomia zirkularraren erreferente gisa kokatzea Europako hegoaldean.
- Nekazaritzako elikagaien, itsasoko elikagaien eta basogintzako sektoreak indartzea, bioekonomia zirkularraren aukerak aprobetxatzeko.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LEHENTASUNEZKO ILDOAK

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LEHENTASUNEZKO ILDOAK (1/2)

NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREAREN ROLA INDARTZEA. BELAUNALDI-ERRELEBOA SUSTATZEA LEHEN SEKTOREAN	ENPRESEI LAGUNTZA EMATEA NEGOZIOA SORTZEN	TOKIKO ETA ESTATUKO MERKATUAK NAZIOARTEKOTU ETA GARATZEA	TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA BALIO ERANTSIKO NEGOZIOEN ZERBITZURA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lehen sektorearen gaztetzea sustatzea, beste administrazio eta eragile batzuekin lankidetzan. 2. Sektore barruko eta sektore arteko berregituraketan aurrera egitea. 3. Lehen sektorea indartzea elikadura eta zuraren balio-katean. 4. Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen ingurumen-jasangarritasunaren alde egitea. 5. Gizartea sentibilizatzea lehen sektorearen rol estrategikoari buruz, gizartean, ekonomian, ingurumenean, kultura-ondarea, lurraldearen orekan, eta abarrearantz egiten duen ekarpenari esker. 6. Emakumearen irudia indartzea sektorean. Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan aurrera egitea 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Behar eta etapa bakoitzera egokitutako programa, zerbitzu eta laguntza-ildoak eskaintzea. 2. Enpresei laguntzeko finantzaketak tresnak sustatzea. 3. Euskadi kokatzea ekintzaitzarako eta barne-ekintzaitza sustatzeko lurralde erakargarri gisa 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Elikadura-gastronomia-turismoa triangeluaren nazioartekotzea sustatzea. 2. Enpresen nazioartekotzea sustatzea. 3. Tokiko eta kalitateko produktu jasangarriak sustatzea. 4. Euskadiko gastronomia- eta elikadura-sistema sustatzea, Basque Country markan oinarrituta. 5. Kanal-aniztasuna 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresa ireki eta konektatuak, soluzio hobek eskaintzeko eta kontsumitzaileen beharrei aurrea hartzeko. 2. Ekoizpen-sistema berri eta jasangarri, automatizatu, efiziente eta seguruagoak, lehiakortasuna irabazteko. 3. Elikagai osasuntsuak eta komenentziakoak, pertsonen balio erantsi handiagoa emateko

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LEHENTASUNEZKO EKINTZA-ILDOAK (2/2)

KULTURA ETA GIZA KAPITLA	PROIEKTU ESTRATEGIKO ETA ERALDATZAILEAK	LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA	BIOEKONOMIA ETA ZURAREN BALIO-KATEA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Pertsonak sentsibilizatu eta prestatzea sektorea ezagutzeko behar berrietan eta elikadura osasuntsuaren garrantzian. 2. Talentua garatu, erakarri eta mantentzearen aldeko apustua egitea, etorkizuneko lehiakortasun-faktore gisa. 3. Berrikuntza teknologikoaren eta ez teknologikoaren kultura sustatzea. 4. Enpresen zuzendaritza-prestakuntza indartzea, bereziki enpresa txikienetan. 5. Kultura gastronomikoa sustatzea 	<ol style="list-style-type: none"> 1. “The Global Food Ecosystem” ekimen publiko-pribatua sustatzea, lidergo publikotik sektorea eraldatzeko proiektu pribatuak sustatu eta ahalbidetzeko eta egungo eragileen berrikuntza, ekintzailatza, digitalizazio eta lanbide-heziketako gaitasunak eraikitzeko. 2. Gaitasun eraldatzailea duten proiektuen garapena sustatzea eta sektorerako inbertsioa erakartzea. 3. Proiektu eragile kolaboratzaileak sortzea. 4. Inbertsio teknologikoak indartzea, sektorea bultzatzeko gaitasuna duten enprekin lankidetzan 	<ol style="list-style-type: none"> 1. “Gastronomy Open Ecosystem (GOe)” ekimena sustatzea, balio-kate osoan talentua, ezagutza, berrikuntza eta ekintzailatza sustatuko dituen ekosistema bat sortzeko, gastronomiaren bidez. 2. Erakunde arteko lankidetzak publiko-pribatua. 3. Aliantza, kluster eta enpresa-elkarteei laguntzea masa kritikoa irabazten. 4. ZTBESko sektore-eragileei laguntzea enpresa-transferentzia eta -lankidetzan. 5. Ekimenak sustatzea landa- eta itsasertz-eremuetako gune ahulenetan 	<ol style="list-style-type: none"> 1. 2021-2024 Bioekonomiaren Plan Estrategikoa ezartzea. 2. Zuraren balio-katea sustatzea, ekoizpenerako, eraldaketarako eta kontserbaziorako hobekuntzak sustatuz eta bioekonomiarako baliabide gisa dituen aukerak indartzuz (energia, eraikuntza, packaging...). 3. Ekintzailatza, barneko ekintzailatza eta enpresa-jarduerak berrien sorrera sustatzea bioekonomia zirkularraren arloan, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-sektorean eta elikadura-eraldaketarekin eta elikagaien xahutzearen kudeaketarekin lotutako jardueretan ipiniz arreta.

6. JARDUKETEN LABURPENA

NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREAREN ROLA INDARTZEA. BELAUNALDI-ERRELEBOA SUSTATZEA LEHEN SEKTOREAN

1. Lehen sektorearen gaztetzea sustatzea, beste administrazio eta eragile batzuekin lankidetzan.
2. Sektore barruko eta sektore arteko berregituraketan aurrera egitea.
3. Lehen sektorea indartzea elikadura eta zuraren balio-katean.
4. Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen ingurumen-jasangarritasunaren alde egitea.
5. Gizartea sentsibilizatzea lehen sektorearen rol estrategikoari buruz, gizartean, ekonomian, ingurumenean, kultura-ondarea, lurraldearen orekan, eta abarrean egiten duen ekarpenari esker.
6. Emakumearen irudia indartzea sektorean. Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan aurrera egitea

- Lehen mailako sektorean ekintzaile berriei egokitutako finantza-tresnak bultzatzea.
- Nekazaritza-, abeltzaintza-, baso- eta arrantza-ustiategietan belaunaldi-ordezkapena bultzatzea, eta bioekonomiarekin lotutako negozio-eredu berriak txertatzea.
- Sektorearen berregituraketa, kooperatibismoa eta abar sustatzea, eta merkaturatze-egiturak garatzea.
- Lehen mailako sektorearen eskuzko beharrei modu integralean heltzea, eta, besteak beste, nekazaritza-sektorerako eskulana erraztuko duten enpresak edo egiturak bultzatzea.
- Elikakatearen Behatokia sortzea, katearen funtzionamenduaren eta prezioen jarraipena eta azterketa egiteko.
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategietako ekoizpenaren eraldaketa sustatzea.
- Euskadin ekoizpen ekologikoa sustatzea. Nekazaritza ekologikoaren arloko proiektuak garatzea, sektoreari profesionalizazio eta lehiakortasun handiagoa emateko.
- Tratamendu fitosanitarioak murriztea ahalbidetuko duten teknologia berriak bultzatzea (digitalizazioa, mutagenesia, etab.).
- Landa- eta itsasertz-eremuak eta natura-inguruneak hiri-munduan daukaten balio-ekarpina ezagutaraztea eta tokiko produktuen ospea eta kontsumoa bultzatzea, NIREA ekimenaren esparruan.
- Elikagaien ekoizpen eta kontsumo ekologikoari buruzko informazio- eta dibulgazio-kanpainak bultzatzea.
- Laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituzten arauetan emakumeen titulartasuna lehenestea
- Emakumeen ekintzaitza sustatzea.
- Emakumeak enpresetako eta landa- eta itsasertz-inguruneko erabaki- eta partaidetza-organoetan modu eraginkorrean sar daitezten sustatzea, eta parte-hartze horren garrantziari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Landa- eta itsasertz-inguruneko emakumeen egoerari buruzko ezagutza hobetzea eta eguneratzea.

ENPRESEI LAGUNTZA EMATEA NEGOZIOA SORTZEKO

1. Behar eta etapa bakoitzera egokitutako programa, zerbitzu eta laguntza-ildoak eskaintzea.
2. Enpresei laguntzeko finantzaketa-tresnak sustatzea.
3. Euskadi kokatzea ekintzailtzarako eta barne-ekintzailtza sustatzeko lurralde erakargarri gisa.

- **ONekin programa** sustatzea, ekimen ekintzaileei, digitalizazioari eta berrikuntzari arreta integrala eta pertsonalizatua emateko zerbitzua.
- Enpresei laguntzeko diziplina anitzeko talde bat sortzea: **eskura dauden tresnen mapari buruzko aholkularitza-bonuak sortzea.**
- **Dauden finantza-tresnak indartzea** eta negozio-behar eta -tipologietara egokitutako finantza-tresna berriak sustatzea, hala nola zirkulatzailleko finantza-tresna bat sortzea, LGENF funtsaren esparruan finantza-tresna bat bultzatzea, Sendotu eta Hazilur indartzea, etab.
- **Inkubazio/azelerazio-programak sendotzea** (EIT Food eta Seedbed Incubator, BIND 4.0 Food Tech, Culinary Action! programa)
- **Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzea**; bereziki, digitalizazioari, trantsizio ekologikoari eta abarri lotutako enplegu-sorgune berriei dagokienez.
- Azeleragailuetan/inkubagailuetan parte hartzen duten enpresak Euskadin benetan instala daitezten lortzea.
- Enpresa ezartzeko gidak egitea, enpresa bat sortzeko beharrezkoak diren edukiak eta alderdiak jasotzeko.
- **Erakundeen arteko lankidetzak** indartzea, beharrezkoak diren administrazio-izapideei, kokalekuen bilaketari, arau-eskakizunei, laguntza teknologikoari, laguntza finantzario, legal eta fiskalari eta abarri lotutako enpresa-proiektuak abian jartzen laguntzeko.
- **“Basque Food Innovation Hub”** bultzatzea, elikaduraren eta zuraren balio-katearen esku zerbitzuak eta aktiboak jartzeko, eta ekintzailtzarekin lotutako berrikuntza- eta digitalizazio-erronkei aurre egiteko, Basque Digital Innovation Hub-ekin koordinatuta.

TOKIKO ETA ESTATUKO MERKATUAK NAZIOARTEKOTU ETA GARATZEA

1. Elikadura-gastronomia-turismoa triangeluaren nazioartekotzea sustatzea.
2. Enpresen nazioartekotzea sustatzea.
3. Tokiko eta kalitateko produktu jasagarriak sustatzea.
4. Euskadiko gastronomia- eta elikadura-sistema sustatzea, Basque Country markan oinarrituta.
5. Kanal-aniztasuna.

- “Ardoa Basque Wine Office” sustatzea.
- Nazioartekotze-planak egin daitezen sustatzea.
- Nazioartekotzeko eta merkatu berriak irekitzeko laguntza indartzea (misio zuzenak, alderantzizkoak, etab.).
- Gastronomia eta Elikadura Euskadi nazioartean sustatzeko ekintzetan sartzea, Basquetourrekin batera.
- REGAL bultzatzea: eskualde berriak sartzea, eta, horretaz aparte, eragile sektorialak sartzea eta hainbat eremutako ekintzak zehaztea (berrikuntza, digitalizazioa, etab.).
- Enpresen eta partzuergo esportatzaileen arteko lankidetzaren bultzatzea, eraginkorragoak izateko eta nazioarteko merkatuen garapenean ondorio sinergikoak lortzeko. Esportazio-partzuergoen sorrera sustatzea.
- Gastronomiaren eta tokiko ekoizleen arteko lankidetzarako laguntza mantentzea.
- Hurbileko salmentari buruzko Dekretua argitaratzea.
- Eskoletako jantokietan eta antzekoetan tokiko produktuak txertatzen eta kontratatzen lagunduko duten klausula berriak aztertzea eta zehaztea.
- Kanal anitzeko estrategia eta kalitatezko produktuen kanal-aniztasuna garatzen laguntzea.
- Ziurtagiri bikoitzeko produktuak garatzea: kalitate berezia eta ekologikoa.
- “Food 4 Future” nazioarteko eragineko nazioarteko kongresu zientifikoak eta ekitaldi gastronomikoak Euskadin egin daitezen bultzatzea.
- Nazioarteko preskriptoreak (kazetariak eta kritikari gastronomikoak, *bloggerak*) erakartzea eta Euskadi fidelizatzea, maila globalean sustatzaile gisa jardun dezaten.
- Basque Culinary World Prize mantentzea eta bultzatzea.

TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA BALIO ERANTSIKO NEGOZIOEN ZERBITZURA

1. Enpresa ireki eta konektatuak, soluzio hobek eskaintzeko eta kontsumitzaileen beharrei aurrea hartzeko.
2. Ekoizpen-sistema berri eta jasangarri, automatizatu, efiziente eta seguruagoak, lehiakortasuna irabazteko.
3. Elikagai osasuntsuak eta komenentziakoak, pertsonen balio erantsi handiagoa emateko.

- Digitalizazio Estrategiaren Ekintza Plana sustatzea.
 - Balio-katean proiektu erakusleak sustatzea, zeinak ekoizleen, eraldaketaren, banatzaileen eta HORECaren arteko zeharkakoak diren, eta ETE-en eten digitalari aurre egiteko xedea duten.
 - Digitalizazioaren sentsibilizazioa eta gaikuntza.
 - Digitalizazioari buruzko aholkularitza-bonuak sortzea.
- Digitalizazio Estrategiaren Ekintza Plana sustatzea
- Enpresen negozio-katean datuak sortzeko eta kudeatzeko tresnen garapena sustatzea, erabakiak hartzea errazteko eta eragile garrantzitsuak ekoizlearengandik azken bezeroarengana konektatzeko.
- I+G bultzatzea, pertsonen osasunean eragina duten antibiotikorik, pestizidarik eta bestelako kutsatzaile kimiko edo biologikorik gabeko ekoizpen-sistema seguruagoak garatzeko.
- ETE-ei laguntzea I+G-ko inbertsio-programetan.
- Elikagaiak xahutzea: diagnostikoa (amaiera), Ekintza Planaren garapena eta sentsibilizazio-kanpaina.
- Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Plan berria egitea eta garatzea.
- Lehengaietan baliabideen erabileraren eraginkortasuna; biohondakinen errebalorizazioa; ontziratzea; hondakinak murriztea eta lehengaiak hornitzeko, merkaturatzeko eta logistikarako zirkuitu laburren garapena azpimarratzen duten jarduketak sustatzea enpresetan.
- Teknologia berriak garatzea eskala pilotuan, argi-pultsuetan, MW bidezko lehortze-teknologietan eta abarretan oinarrituta.
- Laboreak eta ekoizpen-sektoreko teknologiak egokitzeko proiektuak garatzea, klima-aldaketak nekazaritzan dituen ondorioak mugatzeko eta haren eragina arintzeko nekazaritza-praktikak sustatzeko.
- Irtenbide osasuntsuak eta produktu berriak garatzen laguntzea, eta arreta berezia jartzea haurren obesitatearen prebentzioan eta adinekoen eta kronikotasuna duten pertsonen beharrei erantzutean (gluzemia-indizea, minbizia...).
- Proiektu berritzaileak garatzea, hainbat biztanleria-segmenturi komenentziako irtenbideak eskaintzeko.

KULTURA ETA GIZA KAPITLA

1. Pertsonak sentsibilizatu eta prestatzea sektorea ezagutzeko behar berrietan eta elikadura osasuntsuaren garrantzian.
2. Talentua garatu, erakarri eta mantentzearen aldeko apustua egitea, etorkizuneko lehiakortasun-faktore gisa.
3. Berrikuntza teknologikoaren eta ez teknologikoaren kultura sustatzea.
4. Enpresen zuzendaritza-prestakuntza indartzea, bereziki enpresa txikienetan.
5. Kultura gastronomikoa sustatzea.

- **Gastronomia eta elikadura osasuntsu eta jasangarria maila guztietako prestakuntza- eta hezkuntza-programetan egon dadin sustatzea.**
- Elikadura osasuntsuaren garrantziari buruzko informazioa zabaltzeko hainbat kanal sustatzea.
- **Prestakuntza duala** sustatzen jarraitzea: euskal enpresetan praktikak, gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, etab.
- **Talentu ekintzailea** erakartzeko hainbat programa eta ekintza bultzatzea kate osoan, eta arreta berezia jartzea lehen mailako sektorean.
- **Teknologo eta ikertzaile gazteak** enpresetan eta berrikuntza-eragileetan sartzen laguntzea.
- Ikertzaileak eta teknologoak enpresetan egoteko programak sustatzea.
- **ZTBESko langileak** sektoreko enpresetara transferitzen laguntzea.
- **OTEBBak** gaitzeko ekintza espezializatuak sustatzea sektore- eta teknologia-kudeaketaren gaietan.
- **RIS3** elikaduraren lehentasunezko ikerketa-ildoetako lotutako erronkak eta heldu beharreko erronka berriak zabaltzeko eta elkarrekin sortzeko jardunaldiak egitea.
- **Berrikuntzaren aldeko kultura** sortzea.
- **Zuzendariak nazioartekotzeko eta balioa atzemateko prestakuntza-ikastaroak programatzea.** Zuzendarientzako (AZTI) eta lanera prestakuntzarako (HAZI) ikastaroen etengabeko programazioa ezartzea.
- **Gastronomian adituak** diren ikastaroak eta masterrak eskaintzea (BCC).
- **Kultura gastronomikoari eta tokiko produktuari buruzko sentsibilizazio-programak** bultzatzea hezkuntza-maila guztietan: lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, batxilergoan, lanbide-heziketan eta unibertsitateetan.
- **Nortasuna** eraikitzen jarraitzea, lurraldeari, kulturari eta paisaiari balioa ematea, eta, horretarako, elikadura eta gastronomia erabiltzea.

PROIEKTU ESTRATEGIKO ETA ERALDATZAILEAK

1. “The Global Food Ecosystem” ekimen publiko-pribatua sustatzea, lidergo publikotik sektorea eraldatzeko proiektu pribatuak sustatu eta ahalbidetzeko eta egungo eragileen berrikuntza, ekintzailtza, digitalizazio eta lanbide-heziketako gaitasunak eraikitzeko.
2. Gaitasun eraldatzailea duten proiektuen garapena sustatzea eta sektorera inbertsioa erakartzea.
3. Proiektu eragile kolaboratzaileak sortzea.
4. Inbertsio teknologikoak indartzea, sektorea bultzatzeko gaitasuna duten enprekin lankidetzan.

- Trakzio-proiektu estrategikoak eta berritzaileak bultzatzea AGRO_tech, FOOD_tech eta CULINARY_tech jarduketa-eremuetan.
- Eraldaketa-palankak (digitala, ekintzailtzakoa, nazioartekotzekoa) sustatzea, balio-katearen zeharkako integrazioa hobetzeko eta proiektu estrategikoen garapena laguntzeko.
- Inbertsioa eta talentua erakartzea sustatzea elikaduraren esparruan.
- Nazioarteko aliantza-plana sustatzea, enpresa-lankidetzan, berrikuntzarako gaitasunak, ekintzailtza, gaikuntza eta erakundeen arteko lankidetzan bultzatzeko.
- “Food for Future” nazioarteko ekitaldia sustatzea, zeina elikaduraren arloko munduko berrikuntzen erakuslelana den.
- Enpresei laguntzea enpresa-kontzentrazioko proiektuetan, tamaina handiko enpresa-proiektuei ekiteko behar duten masa kritikoa handitzeko.
- Atzerriko inbertsioa erakartzea, elikaduraren eta gastronomiaren katean ekoizpen-proiektuak ezartzeko.
- Funtz pribatuak sustatzen jarraitzea eta Hazilur indartzea.
- Euskadin nazioarteko elikagai-taldean enpresetako I+G unitateak ezar daitezkeen bultzatzea.
- Proiektu estrategikoen garapena bultzatzea RIS3 espezializazio adimenduneko planean lehenetsitako eremuetan, elikadura osasungarriaren eta elikagai seguruak eta iraunkorrak ekoizteko sistema berrien arloan.
- Landa-turismoa sustatu eta bultzatzea, lehen mailako sektorearekin, lehenengo eraldaketako produktuekin eta enoturismoarekin lotutako zerbitzu-eskaintza bati lotuta.
- Bioekonomiako eta elikadura zirkularreko trakzio-proiektuak sustatzen jarraitzea.
- Sailen arteko lankidetzan, elikagaien eta zuraren esparruan ekintzailtza aktibatzeke, lotutako eragileekin batera (SPRI, BICak, BEAZ, etab.).

LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA

1. “Gastronomy Open Ecosystem (GOe)” ekimena sustatzea, balio-kate osoan talentua, ezagutza, berrikuntza eta ekintzailtza sustatuko dituen ekosistema bat sortzeko, gastronomiaren bidez.
2. Erakunde arteko lankidetzak publiko-privatuak.
3. Aliantza, kluster eta enpresa-elkarteei laguntzea masa kritikoa irabazten.
4. ZTBESko sektore-eragileei laguntzea enpresa-transferentzia eta -lankidetzan.
5. Ekimenak sustatzea landa- eta itsasertz-eremuetako gune ahulenetan.

- Lehentasunezko hiru ardatzen gaineko jarduerak sustatzea: “jasangarritasuna”; “osasuna eta bizitza”; “jasangarritasuna eta zapoak”.
- Eragileek zerbitzuak eman eta garatzeko espazio eta sare bat hornitzea (prestakuntza-espazioa; LAB/Factory + Coworking/Networking + Ekitaldiak/Showroom; proiektuen bideragarritasun teknikoa eta komertziala baliozkotzea; finantzatzea; etab.).
- Katilu (Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordetza, Innobasque, HAZI, NEIKER, Azti, ELIKA, BCC eta LEARTIKER) erakundearen bidez **Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Bizia (BLEB)** hedatzea, ekimen berritzaileen garapena errazteko.
- Osalanekin lankidetzan aritzea, **segurtasun- eta osasun-planak eguneratzeko.**
- **Berrikuntzako ekosistema indartzea, berrikuntzako bitarteko eragileen bidez.**
- Balioa sortzen duten **lankidetzak-proiektuen garapena sustatzea**, hala nola baterako erosketa eta beste zerbitzu batzuk, posizio lehiakorra indartzen duten eta enpresen emaitzetan eragina duten logistikak.
- **Sektoreko eragile teknologikoei laguntzea I+G garatzeko RIS3ren ikerketa-lehentasunetan.**
- Sektoreko eragile teknologikoei balio-katearen garapenean duten rola sendotzea, bikaintasun zientifikoari, merkatura bideratzeari eta espezializazioari dagokienez.
- Teknologia sektoreko eragile teknologikoetatik balio-kateko enpresetarako transferitzea sustatzea, eta erakusteko proiektuak garatzea.
- **Nazioarteko I+G proiektuetan parte hartzea** sustatzea, sektorera transferi daitezkeen teknologiak garatzeko eta erakartzeko.
- **Landa-eremuetan banda zabaleko azpiegitura amaitzea.**
- **Emakumeen ekintzailtza** ikusarazteko eta bultzatzeko ekintzak bultzatzea, aholkularitza-, prestakuntza- eta sari-ekintzen bidez.

BIOEKONOMIA ETA ZURAREN BALIO-KATEA

1. 2021-2024 Bioekonomiaren Plan Estrategikoa ezartzea.
2. Zuraren balio-katea sustatzea, ekoizpenerako, eraldaketarako eta kontserbaziorako hobekuntzak sustatuz eta bioekonomiarako baliabide gisa dituen aukerak indartuz (energia, eraikuntza, *packaging*...).
3. Ekintzailtza, barneko ekintzailtza eta enpresa-jarduera berrien sorrera sustatzea bioekonomia zirkularraren arloan, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-sektorean eta elikadura-erlaketarekin eta elikagaien xahutzearen kudeaketarekin lotutako jardueretan ipiniz arreta.

- Enpresak bioekonomiarekin lerrokatutako negozio-eredu berrietara igarotzea bultzatzea.
- Euskadiko unibertsitate-irakaskuntzan bioekonomiaren printzipioak integratzea.
- Bioekonomiari lotutako enpresa berriak sustatzea eta “Innovation and Business Discovery Hub” programa garatzea *startup* berriak sortzeko.
- Lehentasunezko eremuetan (eraikuntza, *packaginga* eta biomaterialak) balio erantsi handiagoko produktu eta soluzio berrien garapena sustatzea.
- Ekoiztako biomasa-baliabideen erabilera jasangarria babestea, landa-ingurunean aukera berriak sortzeko.
- Labore, produktu eta erabilera berrietarako (eraikuntza, material berriak, biomasa, etab.) aukerak aztertzea.
- Laguntza-neurriak eta finantzaketa-tresnak basogintza-sektorera, eta, bereziki, bioekonomiaren esparrura egokitzea.
- Enpresetan eta ustategietan teknologia eta digitalizazioa txertatzea. Baso-kudeaketan aurrera egitea.
- Garapen teknologikoak eskalatzea ahalbidetuko duten azpiegitura publiko-pribatuak sustatzea.
- Basogintzako Bioekonomiaren arloan I+G+b sustatzea.
- Nekazaritzako eta basogintzako bioekonomiaren arloan enpresa berriak ezartzen laguntzea.
- Enpresetan nekazaritzako eta basogintzako bioekonomiari lotutako ildo berrien garapena sustatzea.
- Enpresen ekoizpen-prozesuak egokitzen laguntzea, eta, horretarako, ekoizpen-prozesuetan material berriztagarriak sartzea, berriztagarriak ez diren gaien ordez.
- Kooperatiba-tresnak, partzuergoak edo baso-inbertsioko sozietateak gaitzea.

7. GEPE BERRIAREN EKARPENA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI (GJH)

PEGA BERRIAREN EKARPENA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI (GJH)



NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREAREN ROLA INDARTZEA. BELAUNALDI-ERRELEBOA SUSTATZEA LEHEN SEKTOREAN	1 FIN DE LA POBREZA	3 SALUD Y BIENESTAR	4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES	13 ACCIÓN POR EL CLIMA				
ENPRESEI LAGUNTZEA NEGOZIO BERRIAK SORTZEN	4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA								
TOKIKO ETA ESTATUKO MERKATUAK NAZIOARTEKOTU ETA GARATZEA	3 SALUD Y BIENESTAR	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES	13 ACCIÓN POR EL CLIMA							
TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA BALIO ERANTSIKO NEGOZIOEN ZERBITZURA	3 SALUD Y BIENESTAR	4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES	13 ACCIÓN POR EL CLIMA				
KULTURA ETA GIZA KAPITALA	3 SALUD Y BIENESTAR	4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES						
PROIEKTU ESTRATEGIKO ETA ERALDATZAILEAK	4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES	13 ACCIÓN POR EL CLIMA					
LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA	2 HAMBRE CERO	3 SALUD Y BIENESTAR	4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA	11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES	13 ACCIÓN POR EL CLIMA			
BIOEKONOMIA ETA ZURAREN BALIO-KATEA	1 FIN DE LA POBREZA	2 HAMBRE CERO	3 SALUD Y BIENESTAR	7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE	8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA	11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES	12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES	13 ACCIÓN POR EL CLIMA	14 VIDA SUBMARINA	15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES

8. GOBERNANTZA-EREDUA

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatu eta gidatu du 2024rako Gastronomia eta Elikadura Plana, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak kudeatu eta koordinatu du.



9. AURREKONTU-ESPARRUA

Gastronomia eta Elikaduraren II. Plan Estrategikoaren (GEPE II) elikaduraren eta zuraren balio-katera bideratutako gastu publiko **totala 280 milioi eurokoa** da. Halaber, zuzeneko laguntzetara bideratutako zenbatekoa 185 milioi euro ingurukoa izan daiteke. Epe bereko inbertsio pribatua, gastu publiko totalarekin lotutakoa, **500 milioi eurotik gorakoa izan daiteke.**

Gainera, Next Generation programaren barruan (**The Food Global Ecosystem, Gastronomy Open Ecosystem**, etab.) aurreikusitako jarduketei dagokien gastu publikoa 200 milioi eurokoa da.

Beraz, 2021 eta 2024 artean, inbertsioa 1.165 milioi eurotik gorakoa izan daiteke guztira.

EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2024

PLAN ESTRATÉGICO DE LA GASTRONOMÍA Y ALIMENTACIÓN DE EUSKADI 2024



ESKERRIK ASKO



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE